

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 18a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00018. Nafarroako Aurrekontu Orokorretako izendun dirulaguntzei (2019-2022) buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00018. Nafarroako Aurrekontu Orokorretako izendun dirulaguntzei (2019-2022) buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Aurrekontu Orokorretako izendun dirulaguntzei (2019-2022) buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Nafarroako Aurrekontu Orokorretako izendun dirulaguntzei (2019-2022) buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	4
II. HELBURUAK ETA IRISMENA	4
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	5
IV. NAFARROAKO PARLAMENTUREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA	7
V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	8
1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	9
2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK.....	10
2.1. Administrazio publikoen sustapen-jarduera. Transferentziak eta dirulaguntzak.....	10
2.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu orokorretako transferentziak eta dirulaguntzak 2019-2022 epealdian.....	11
2.3. Fiskalizazioaren emaitzak.....	20
3. GEHIGARRIA. BESTELAKO INFORMAZIOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN 2019-2022 EPEALDIKO AURREKONTU OROKORRETAKO IZENDUN DIRULAGUNTZEI BURUZKOA.....	33

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzkoabenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, erakunde honek 2023ko ekitaldirako bere egitarauan jaso zuen 2019-2022 urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotako izendun dirulaguntzen fiskalizazioa.

Landa-lana 2023ko urtarriletik apirilera bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik, sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jardun horren emaitzak Nafarroako Gobernuaren departamentu ikuskatuei jakinarazi zitzaizkien, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaizten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Nafarroako Gobernuak langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Fiskalizatu egin dira Nafarroako Parlamentuak onetsi eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) kudeatutako izendun dirulaguntzak, helburu hauek hartuta:

- Ikustea ea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertzen diren izendun dirulaguntzak egiazki kudeatu ote diren Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari jarraituz (aurrerantzean, DFL).

- Ikustea ea zuzeneko araubideko dirulaguntzen xedea bat datorren norgehiagokaraubidekoenarekin, eta laguntzen diru-kopuruari dagokionez ba ote dagoen alderik bi ematearabideen artean.

- Ikustea ea betetzen den 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, bai eta martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretua ere, zeinaren bidez arautzen baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen nahiz gainerako laguntza publikoen publizitatea.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu zuzeneko araubideko dirulaguntzak, 2019-2022 urte-tartekoak, DFLaren 17.2.a) artikulua kasuan:

a) *Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko Foru Legean berariaz izendatutakoak.*

Lan honek norainokoan ez daude sartuta DFLaren 17.2.b) eta 17.2.c) letretan jasotako kasuak, zeinak hauek baitira:

b) *Lege mailako arauen batek aginduta edo zenbatekoa zehaztuta administrazioak ematen dituenak. Kasuan kasuko prozedura aplikagarria erabiliko da dirulaguntza horiek emateko, bakoitzaren araudiari jarraituz.*

c) *Salbuespenez, hartzaile bat hautaturik beste edozein interesduni dirulaguntza eskuratzeko aukera kentzen zaionean, dirulaguntzaren xedea dela eta.*

Lana egiteko erabilitako informazio-iturriak honako hauek izan dira:

- SAP G-21, aurrekontu-exekuziorako
- Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (aurrerantzean, DDBN)
- Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren (aurrerantzean, AZN) Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren datu-basea
- AZNaren datu-basea, Parlamentuko zuzenketena.
- AZNak emandako informazioa
- Kontu-hartzailatza Nagusiak jaulkitako txostenak

Fiskalizazioa egin da nola eta sektore publikoaren fiskalizazio-printzipio funtsezkoari, ISSAI-ES 400 "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarriko printzipioak" arauari, eta kanpo-kontrolko organoen fiskalizazio gida praktikoei jarraituz.

Ez da murriztapenik egon, lanaren prestaketan eraginik izan duenik.

III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

- DFLaren 17.1 artikulua dioenari jarraituz, dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagokaren araubideari jarraituz tramitatuko da, salbu eta, behar bezala justifikaturiko kasuetan, banakako ebaluazioaren araubidea baimentzen denean. 17.2 artikuluan dago jasota zuzeneko dirulaguntzen araubidera salbuespenez zer kasutan jo daitekeen; besteak beste, Nafarroako aurrekontu orokorren foru legeetan berariaz izendatutako dirulaguntzengan.

- Dirulaguntza izendunetan eta izengabeetan (hots, laguntza-partida generikoak) eginiko gastuaren bilakaera honako taula honetan azaltzen da:

Gastua	2019	2020	2021	2022	22/19 gehikuntza
Izendun dirulaguntzak	30.009.418	29.919.531	35.933.868	41.169.562	% 37
Dirulaguntza izengabeak	340.125.857	393.196.790	429.212.256	651.339.824	% 91
Dirulaguntzak, guztira	370.135.275	423.116.321	465.146.124	692.509.385	% 87

Bestetik, aurrekontu-partiden kopuruak honako bilakaera hau izan du:

Aurrekontu-partiden kopurua	2019	2020	2021	2022	22/19 gehikuntza
Izendun partiden kopurua	158	238	310	416	% 163
Partida izengabeen kopurua	443	468	504	564	% 27

Dirulaguntzak zuzenean ematearen araubidearen salbuespenezkotasuna aintzat harturik, bereziki esanguratsua da izendun dirulaguntza-partiden kopuruak izandako ehuneko 163ko gorakada, 2019an 158 partida izatetik 2022ko ekitaldian 416 izatera pasa direnez gero. Gorakada horrek esan nahi du izendun dirulaguntzetako gastua ehuneko 37 areagotu dela.

- Honako koadro honetan agertzen da dirulaguntzen izendun partiden kopuruak izandako bilakaera, jatorriaren arabera:

Partida-kopurua	2019	2020	2021	2022	22/19 gehikuntza
Nafarroako Gobernuak Aurrekontu Orokorren Foru Lege proiektuan jasotako partidak	103	117	158	175	% 70
Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean talde parlamentarioen zuzenketa bidez jasotako partidak	55	121	152	241	% 338
Guztira	158	238	310	416	% 163

Ikusten da gehikuntzarik handiena zuzenketa parlamentarioetatik eratorritako izendun partidetan gertatu dela, 186 partida gehiago baitaude, ehuneko 338 alegia, noiz eta Nafarroako Gobernuak bere aurrekontu-proiektuan proposatutako partidek 72 gehiago egiten baitute; hots, ehuneko 70eko gorakada.

- Izendun dirulaguntzen onuradun nagusienak toki entitateak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak dira. Izendun partida hauen ugaritzea zuzenketa parlamentarioak eztabaidatzeko prozesuan gertatu da.

- Sei departamentu aztertu ditugu, zeinetan zenbait kudeatze-unitate berrikusi baitira, 58,98 milioiko gastu-bolumena egin dutena izendun dirulaguntzetan, 409 partida izendunetan banatuak.

Populazio horretatik, gastuaren ehuneko 18koa eta izendun partiden ehuneko 11koa den lagin esanguratsu bat hautatu dugu. Emaiza honako hau izan da:

- Laginean, gutxienez ere izendun partiden ehuneko 76an:

- a) Bat datoz izendun dirulaguntzen xedea eta norgehiagoka-araubideko urteroko zenbait deialditan aurreikusitako laguntzena, eta halaber bat datoz, partzialki bederen, toki-entitateen finantzaketaren xedearekin, zeina Toki Azpiegituren Planean (TAP, aurrerantzean) aurreikusten baita, Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsekoan.
- b) Diruz laguntzeko moduko xedea bat datorren kasuetan, izendun-dirulaguntzen finantzaketa-portzentajeek eta/edo gehieneko muga finantzagarriek gainditu egiten dituzte norgehiagoka-araubideko urteroko kasuan kasuko deialdietan ezarritakoak.
- c) Norgehiagoka-araubideko dirulaguntzen xedea bat datorrenean azterturiko izendun-dirulaguntzenarekin, batez beste eskarien ehuneko 49 errefusatu egin da kreditu nahikorik ez egoteagatik. Aurrekontu-baliabideak izendun dirulaguntzetara bideratzea, aldi berean ukatu egiten direnean xede bererako dirulaguntzak, norgehiagoka-araubidekoak, ekidin beharreko tratudisberdinkeria bat delakoan gaude.

- Laginean, izendun partiden ehuneko 100ean:

- a) Izendun dirulaguntzak emate aldera departamentuek kudeatu dituzten kasuko espedienteak osatuta daude prozeduraren eta/edo formaren ikuspegitik, fiskalizatuak izan dira, eta sinatu diren hitzarmenek jaso egiten dituzte DFLko aurreikuspenak.
- b) Orobat ikusi da bete egin direla aplikatzekoak diren zuzenbideetan ezartzen diren gardentasunari eta informazio publikoari buruzko betebeharrak.

• DFLaren zioen azalpenak adierazten duenez, *“Dirulaguntzak emateko araubide orokorra norgehiagoka izanen dela ezartzen da. Araubide horrek bidea eman beharko du dirulaguntzak emateko printzipioak, foru legean ezarritakoak, aplikatzeko. Salbuespenez, dirulaguntzak onuradunei zuzenean emateko prozedura batzuk erabili ahalko dira, betiere behar adinako lege-oinarria dagoenean edo, dirulaguntzaren xedea dela eta, interesdun gehiagoren arteko lehia ezinezkoa denean”*.

Halaber, DFLaren 17.2.a) artikulua zuzeneko dirulaguntza-ematearen kasuen artean aurreikusten ditu Nafarroako aurrekontu orokorretan izendun moduan jasotakoak.

Dena den, nahiz eta Ganberak ez duen auzitan jartzen zuzeneko ematearen araubide berrikusia legezkoa izatea, bere iritziz araubide horrek salbuespenezkoa izan behar du, konkurrentzia-printzipioa aplikatua ez izatea justifikatuta dagoenean aplikatu beharrekoa.

Aurrekontuei buruzko foru lege proiekturako onetsitako zuzenketa parlamentarioetan ez da agertzen behar adinako justifikaziorik dagoenik salbuespenezkoa den emate-araubidera jotzeko; izan ere, horietan ez da antzematen inolako beharrian berezirik, edo berrikusitako urteroko deialdiek erdietsi nahi dituzten helburuez bestelakorik.

• Dirulaguntzak zuzenean ematearen araubidea ahalik eta gutxienez erabili beharko litzatekeela kontuan harturik, ez zaigu zentzuzkoa iruditzen dirulaguntzen izendun partidek izan duten ugalketa hain nabarmena –gehienbat, Parlamentuko zuzenketen prozesuan sortu direnek izandakoa–, norgehiagoka-prozeduraren bitartez ematekoak bailirateke, objektibotasun-, berdintasun-, publikotasun- eta lehia-printzipioak errespetatuz.

• Halaber, iruditzen zaigu areagotzen ari den joera hau kaltegarri izan daitekeela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokion kudeaketa publikoaren plangintza-, zuzendaritza- eta kontrol-printzipioentzat.¹ Egoera honek pisu berezia hartu du honako kasuotan:

¹ Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 6.2.g) artikulua.

- a) Nafarroako Kirolaren Institutuaren dirulaguntzen kudeaketan 2023ko ekitaldian egin den aldaketa, ezen urteroko dirulaguntza-deialdiaren ordean Nafarroako Parlamentuak onetsitako izendun partiden zerrenda ezarri baita, eta horrek esan nahi du salbuespenezko araubide bat arrunt bihurtua dela, halakorik justifikatzen duen zergatirik gabe.
- b) Okerdura bat da Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aurrekontuetan jasotako izendun dirulaguntzen bitartez finantzatzea berez Nafarroako Toki Ogasunen Funtsetik finantzatzeko modukoak lirakeen inbertsioak. Funtz hori foru legeak ezartzen du toki entitateak finantzatzeko mekanismo gisa, dirulaguntzez bestelakoa eta Nafarroako tributuetan parte hartzen duena.

Hori guztia dela-eta, honako hau gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzen zuzeneko ematearen prozedura berezira jotzea, esan nahi baita Nafarroako Parlamentuak dirulaguntzen izendun partidak onestearen bitartekora, soil-soilik zinezko salbuespenezko inguruabarrak daudenean, ezin zaienak erantzun norgehiagokaren bitartezko emate-araubidea erabiliz.*

- *Aurrekontu-proiektuari aurkezturiko zuzenketa parlamentarioak negoziatzeko prozeduran, finantzaketa handieneko proposamenak norgehiagoka-araubideko dirulaguntza-partidetara bideratzea arau orokor gisa, eta ez berariaz bideratzea baliabiderik onuradun zehatzei eta horretarako justifikazio-arrazoirik gabe.*

- *Zuzenketa parlamentarioak negoziatzeko prozesuan ahalegina egitea hutsalduta ez uzteko Toki Inbertsioen Planaren helburua eta bertatik finantzatzekoak diren zenbatekoak, izendun dirulaguntzez bestelako finantzaketa-mekanismo gisa.*

Ildo horretan, gure gomendioa da Toki Inbertsioen Planaren zuzkidura areagotu dadila, bidezkoagoa izan dadin toki-finantzaketaren banaketa; edo, kasua bada, urteroko deialdiak onets daitezela norgehiagoka-araubideko laguntzetarako, zeinak bateragarri eta koherente izanzen baitira aipatu toki-finantzaketako sistemarekin.

IV. NAFARROAKO PARLAMENTUREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Parlamentuaren ardurapean dago Nafarroako aurrekontu orokorretan jasotako izendun laguntzetarako baliabideak esleitzea.

NFKAren departamentuen ardura da DFLari jarraituz beren aurrekontuetan esleituriko dirulaguntzen izapidetzea egitea.

V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da konklusio batzuk adieraztea, oinarri harturik dirulaguntzak zuzenean ematearen araubideko prozeduraren aplikazioaz eta berrikusitako denbora-tartean jarduerak izandako bilakaeraz egin dugun fiskalizazioa.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere betetze-fiskalizazioei buruzko ISSAI-ES 400 delakoa aplikatu dugu, bai eta Kanpo Kontroleko Organoen Fiskalizazio Gida Praktikoetan jasotako gidalerroak ere.

Printzipio eta jarraibide horiek behartzen gaituzte etika-baldintzak betetzera eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa halako moldez egitera non moduzko ziurtasun bat lortuko dugun, baliabide publikoen kudeatzea muntazko alderdi guztietan arau indardunen arabera izateaz. Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira iritsitako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzeko prozedurak. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria ematen die dirulaguntzak emateko prozedurei buruz ateratako konklusioei.

Miguel Ángel Aurrecochea auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador.

1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Dirulaguntzen kudeaketari aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2019-2022 epeko foru legeak.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkideari buruzkoa.
- 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, zeinaren bidez arautzen baitira Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen nahiz gainerako laguntza publikoen publizitatea.

2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

2.1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SUSTAPEN-JARDUERA. TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

Administrazioak duen sustatze-jarduera Administrazioaren esku-hartze modu bat da, gauzatzen dena partikularren jarduna interes orokorreko xedeetara bideratuz hainbat pizgarri tarteko, hala nola dirulaguntzak, zeinak finantza-helarazpenerako tresna gisa erabiltzen baitira, sektore publikoak sektore pribatuari helarazteko gehienbat, ezertan eragotzi gabe dirulaguntza-araubidera jotzea sektore publikoko eragile desberdinen arteko jarduketak ere finantzatzeko, edo lurralde- nahiz eskumen-esparru desberdinetako sektore publikoen artekoak.

Finantza-helarazpenek bi jardun-mota barne hartzen dituzte, zedarritu eta bereizi beharra dagoen bi kontzeptutara daramatenak; hots, transferentziak eta dirulaguntzak. Horregatik, beharrezkoa suertatzen da kontabilitate-, aurrekontu- eta zuzenbide-esparru egokira jotzea, horiek bereizteko.

2.1.1. Transferentzien eta dirulaguntzen kontabilitate- eta aurrekontu-esparrua.

Kontabilitate- eta aurrekontu-esparruari dagokionez, 2aurrekontu-transferentzien eta dirulaguntzen ezaugarriak Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko 18. balorazio-araun zehazten dira, "Transferentziak eta dirulaguntzak" izenekoan, 3bai eta Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak presaturiko "Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotako gastu eta diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa" eskuliburuan ere. Dirulaguntzen eta transferentzien arteko aldea horiek ematearen helburuan datza: dirulaguntzak helburu, asmo edo proiektu zehatz bati lotuta daude; transferentziek, ordea, eragiketa edo jarduera banakatugabeak finantzatzen dituzte.

2.1.2. Dirulaguntzen araubide juridikoa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere aurrekontuen kargura ematen dituen dirulaguntzei aplikatu beharreko araubide juridikoa DFLan dago ezarrita.

Dirulaguntza kontzeptua

DFLko 2.1 artikulua honako dirulaguntza-kontzeptua zehazten du:

1. Foru lege honi dagokionez, dirulaguntzat joko da pertsona publiko edo pribatuei dirua ematea, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirua eman dadila onuradunen edo hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak xede izan dezala onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea.

² EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

³ <http://portalempleado.admon-cfnavarra.es/herramientas/herramientas/utilidades-de-apoyo>

Hala ere, ohartarazi behar dugu kontzeptu juridiko hori gero ñabartu egiten dela, zenbait kasu esanbidez zehazten baitira dirulaguntza-izaerarik ez dagoenekoak⁴ edo, are, aipatu DFLaren aplikazio-eremutik at⁵ utzitako dirulaguntza batzuk zehazten baitira.

Emate-araubidea

Dirulaguntzak emateko araubide orokor gisa, DFLak norgehiagoka ezartzen du; eta, salbuespezez, zuzeneko ematea. Zuzeneko ematearen araubidearen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Beste interesdun batzuekiko lehiarik eza.
- Zuzeneko ematearen prozeduraren ezohikoa lege zedarritu eta ezarritako kasuetan baizik ez da aplikatzen. Zehazki, DFLaren 17.2 artikuluan daude zedarrituta aipatu araubidea erabili ahalko den kasuak:

Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahalko dira:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean berariaz izendatutakoak, Parlamentuak onetsitako zenbatekoarekin. Dirulaguntzaren xedea eta onuradun jakin batentzako kontsignazioa agertu beharko dira.

b) Lege mailako arauen batek aginduta edo zenbatekoa zehaztuta administrazioak ematen dituenak. Kasuan kasuko prozedura aplikagarria erabili da dirulaguntza horiek emateko, bakoitzaren araudiari jarraituz.

c) Salbuespezez, hartzaile bat hautaturik beste edozein interesduni dirulaguntza eskuratze-ko aukera kentzen zaionean, dirulaguntzaren xedea dela eta.

2.1.3. Izendun partidetak aurrekontu-murriztapenak

13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa. (aurrerantzean, NOPFL). Zenbait murriztapen ezartzen dizkie aurrekontu-kredituei. Izendun dirulaguntza-partidei dagokienez, horiek ezin dira partidaren bertan adierazten den helburuaz bestelako batera bideratu, ez eta bestelako onuradun batengana ere. Are debeku dute beste aurrekontu-partida batzuetako beharrianak finantzatzera bideratuak izatea ere, NOPFLan jasotako aurrekontu-aldaketa mota desberdinen bitartez alegia, salbu eta kreditu-gehirgarrietarako edo kreditu berezietarako foru legeak onetsiz egiten denean hori.

Bestela esanda: izendun dirulaguntza-partidak dituzten departamentuek ez daukate exekuzio-alternatiba posiblerik, ez bada aurreikusitako helburuaren eta zehaztutako onuradunaren arabera den dirulaguntza baten bitartezkoa; ezen, aurrekontuetan aurreikusita dagoenean ere, beharrezkoa du dirulaguntza emateko esanbidezko administrazio-egintza bat.

2.2. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN AURREKONTU OROKORRETAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK 2019-2022 EPEALDIAN

2.2.1 Informazio eta datu orokorrak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien alorretan Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 2019-2022 epean aitorturiko gastua honako koadro honetan zehazten da:

4. eta 7. kapituluak transferentziak	2019	2020	2021	2022
4. kapitulua	1.580.609.222	1.679.707.436	1.751.301.049	2.298.908.695
7. kapitulua	159.805.388	169.033.239	143.599.515	207.426.280
Gastua, guztira	1.740.414.610	1.848.740.675	1.894.900.564	2.506.334.976

⁴ DFLko 2.2 eta 2.3 artikulua

⁵ DFLko 3. artikulua


Ikusi da transferentzia-alorretan izandako guztizko gastuak goranzko joera izan duela azterturiko epean, halako moldez non 766 milioiko gehikuntza izan baita; hots, ehuneko 44koa.

Transferentzien eta dirulaguntzen arteko bereizkuntza

Azterturiko epean transferentzia eta dirulaguntza kontzeptuek agertutako gastu-bolumena eta bilakaera honako koadro honetan zehazten dira:

Izaera	2019	2020	2021	2022
Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	1.370.279.336	1.425.624.353	1.429.754.440	1.813.825.590
Dirulaguntza arruntak eta kapitalekoak	370.135.275	423.116.321	465.146.124	692.509.385
ORN, guztira	1.740.414.610	1.848.740.675	1.894.900.564	2.506.334.976

Azterturiko epean zehar⁶ transferentzia eta dirulaguntzetan egindako gastuak izandako pisu erlatiboaren batezbestekoa honako grafiko honetan azaltzen da:



2.2.2 Nafarroako Aurrekontu Orokorretan DFLaren 17.2.a) artikuluari jarraikiz izendun gisa jasotako zuzeneko ematearen araubideko dirulaguntzak

Dirulaguntza-kontzeptuan egindako gastua identifikaturik, DFLaren 17.2.a) artikulua xedatzen duenari jarraituz ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan izendun gisa jasota agertzen diren dirulaguntza-partida guztiak zehaztu dira.

Hurrengo koadroan erakusten da dirulaguntzetan eginiko gastuak izan duen bilakaera, haiek izendunen eta izengabeen (hots, laguntza-partida orokorrak) artean bereizita:

Gastua	2019	2020	2021	2022	22/19 gehikuntza
Izendun dirulaguntzak	30.009.418	29.919.531	35.933.868	41.169.562	% 37
Dirulaguntza izengabeak	340.125.857	393.196.790	429.212.256	651.339.824	% 91
Dirulaguntza-gastuak, guztira	370.135.275	423.116.321	465.146.124	692.509.385	87%

⁶ Barne hartzen du Estatuaren karga orokorretara Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoari jarraituz egindako ekarpena.

Honako hau ikusten da:

- Dirulaguntza izengabeetan (laguntza orokorrak, norgehiagoka-araubideko urteroko deialdien bitartez kudeatuak) eginiko gastuak munta handiagoa du, hala zenbaki absolutuetan nola erlatiboki, izendun dirulaguntzek baino.
- Izendun dirulaguntzetan eginiko gastuaren gorakada ehuneko 37koa izan da, noiz eta dirulaguntza izengabeetan eginikoarena ehuneko 91koa izan denean.

Hurrengo koadroan, informazioa partida-kopuruaren arabera taldekatua eskaintzen da. Honakoa da emaitza:

Partida-kopurua	2019	2020	2021	2022	Gorakada 22/19
Izendun partiden kopurua	158	238	310	416	% 163
Partida izengabeen kopurua	443	468	504	564	% 27

Aurreko bi koadroetan paratu dugun informaziotik, garrantzitsu gisa nabarmentzen dugu gehitu egin dela 2022ko ekitaldian izendun dirulaguntzetarako partiden kopurua, 2019ko ekitaldiarekin alderatuta. Izan ere, ehuneko 163ko gorakada egon da (416raino iritsi da, 158tik),

Izendun dirulaguntzen jatorria

Ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorraren foru legean izendun gisa agertzen diren aurrekontu-partidek bi jatorri dituzte:


- Aurrekontuei buruzko foru legearen proiektuan Nafarroako Gobernuak berak sartzen dituenak.
- Aurrekontuetan Parlamentuko eztabaida tarteko jasotzen direnak: talde parlamentario desberdinek zuzenketak aurkezten dizkiote aurrekontuen foru lege proiektuari, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 2007ko urriaren 8ko testu bateginaren 153tik 155.era bitarteko artikuluek xedatuari jarraikiz.

Jatorri bakoitzeko partidek epealdi aztertuan izandako bilakaeraren berri honako koadro honetan ematen da:

Partida-kopurua	2019	2020	2021	2022	22/19 gorakada
Aurrekontu Orokorraren foru lege proiektuan Nafarroako Gobernuak sartutako partidak	103	117	158	175	% 70
Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean Parlamentuko zuzenketen bidez jasotako partidak	55	121	152	241	% 338
Guztira	158	238	310	416	% 163

Ikusi da ezen izendun partidetan izandako gorakada handiagoa gauzatu dela talde parlamentarioek aurrekontuen foru lege proiektuaz eztabaidatu eta horri zuzenketak aurkezteko prozesuan. Aurrekontuen parlamentu-izapidetze prozesuan ehuneko 338ko gorakada egoteak esan nahi du gorakada hori ia bost bider handiagoa dela Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu horretan aurkeztutakoa baino.

Azpiraratzekoa da ezen Parlamentuko zuzenketetatik eratorritako izendun partidetan gertaturiko gorakadarik handiena 2022ko ekitaldikoa izan dela.



Izendun dirulaguntzen onuradunaren izaera juridikoa

Izendun dirulaguntzen hartzaile den onuradunak daukan izaera juridikoari erreparatuta, sailkapena eta xehetasunak honako koadro honetan erakusten dira:

Aurrekontu proiektua	2019	2020	2021	2022	Epealdian izandako aldaketa
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	66	66	98	103	% 56
Toki entitateak	17	18	36	43	% 153
Gainerako entitate publiko nahiz pribatuak	20	33	24	29	% 45
Guztira	103	117	158	175	% 70
Zuzenketa-prozesua	2019	2020	2021	2022	Epealdian izandako aldaketa
Toki entitateak	26	68	106	178	% 585
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	21	43	34	58	% 176
Gainerako entitate publiko nahiz pribatuak	8	10	12	5	- % 38
Guztira	55	121	152	241	% 338


Ikusi da ezen foru lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa parlamentarioen prozesuaren bidez aurrekontuan jasotzen diren partiden onuradun nagusia toki entitateak direla. Alabaina, Nafarroako Gobernuaren ekimenetik aurrekontuen foru lege proiektuan sortuak direnenak irabazi-asmorik ga-

beko erakundeak dira. Nolanahi ere, zuzenketa parlamentarioak eztabaidatzeko prozesuan gertatzen da onuradun nagusien izendun partiden bilakaera handiagoa.

Talde parlamentario proposatzaileak


Hurrengo grafikoan agertzen dira epealdi desberdinetan izendun dirulaguntzetarako onetsitako zuzenketak proposatu dituzten talde parlamentarioak. Horri buruz, ohartarazi beharrekoa da berrikusi beharreko epealdia aukeratu dela 2019an legegintzaldi- eta gobernu-aldaketa izan zela aintzat harturik.

2019ko izendun dirulaguntzei buruz onetsitako zuzenketak proposatu zituzten talde parlamentarioak



Koadro honetako informazioari buruz nabarmentzen dugu ezen 2019ko ekitaldian Parlamentuko zuzenketak batera aurkeztu zituztela adierazitako talde parlamentarioek, hurrenez hurren.



2020-2022 izendun dirulaguntzei buruz onetsitako zuzenketak proposatu zituzten talde parlamentarioak



Koadro honetako informazioari dagokionez, eta 2019ko ekitaldian ez bezala, badaude talde parlamentario bakoitzak nork bere izenean aurkeztutako zuzenketa parlamentarioak, bai eta aipatu talde parlamentarioek elkar hartuta aurkeztuak ere.

Parlamentuko zuzenketen finantzaketa

Egindako analisitik ikusten da nola, azterturiko epealdiko faseetan, finantzaketaren jatorriak al-daketa ohargarria jasaten duen, halako moldez non gero eta pisu handiagoa hartzen baitu aurrekontuen foru lege proiektuan aurreikusitako Kontingentzia Funtzaren erabilerak.⁷





⁷ Kontingentzia Funtza aurrekontu-kredituetarako nahitaezko zuzkidura bereizi baterako da, Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Jasangarritasunerako apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren bidez ezarritakoa, aurrekontu orokorretan ustekabeko beharizan ez-diskrezionalei erantzutekoa. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak 42. artikuluan arautzen du aurrekontu-zuzkidura hori.

Izendun dirulaguntzen banaketa, departamentuko
Hurrengo koadroan, departamentuko xehakatuta agertzen da informazioa


	2019			2020			2021			2022		
	Aitorutako bete-behar garbiak	Aitorutako bete-behar garbiak, %	Parti-dakopurua	Aitorutako bete-behar garbiak	Aitorutako bete-behar garbiak, %	Parti-dakopurua	Aitorutako bete-behar garbiak	Aitorutako bete-behar garbiak, %	Parti-dakopurua	Aitorutako bete-behar garbiak	Aitorutako bete-behar garbiak, %	Parti-dakopurua
Lurralde Kohesiorako Departamentua	*		*	2.216.593	% 7	30	2.216.593	% 13	30	5.086.543	% 14	72
Kultura eta Kirol Departamentua	7.185.749	% 24	42	4.653.685	% 16	60	4.653.685	% 25	60	4.505.155	% 13	60
Eskubide Sozialerako Departamentua	7.360.309	% 25	23	7.687.756	% 26	26	7.687.756	% 11	26	8.409.642	% 23	38
Garapen Ekonomiko eta Enpresarialerako Departamentua	9.862.179	% 33	24	2.892.492	% 10	24	2.892.492	% 10	24	3.472.213	% 10	27
Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua	1.283.053	% 4	15	906.763	% 3	11	906.763	% 5	11	1.225.060	% 3	17
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	28.000	% 1	1	31.000	% 1	1	31.000	% 7	1	31.000	% 1	1
Hezkuntza Departamentua	13.714.09	% 5	12	1.041.023	% 3	17	1.041.023	% 7	17	1.955.048	% 5	21
Lurralde Antolamenduko, Eibexizitako, Paisalako eta Proiektu Estrategikoko Departamentua	*		*	157.968	% 1	4	157.968	% 2	4	335.769	% 1	9
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	*		*	226.808	% 1	4	226.808	% 2	4	415.554	% 1	9
Lehendakaritzako, Berdintasunerako, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	511.405	% 2	7	1.127.500	% 4	23	1.127.500	% 10	23	2.366.995	% 7	19
Herriarrekiko Harremanetako Departamentua	1.595.395	% 5	24	685.612	% 2	17	685.612	% 7	17	799.346	% 2	16
Osasun Departamentua	811.919	% 3	10	864.357	% 3	11	864.357	% 5	11	717.295	% 2	11
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalerako Departamentua				7.427.974	% 25	10	7.427.974	% 4	10	6.614.248	% 18	10
Guztizko orokorra	30.009.418	% 100	158	29.919.531	% 100	238	29.919.531	% 100	238	35.933.868	% 100	310

*2019ko ekitaldian ez ziren Nafarroako Gobernuaren departamentu gisa existitzen. Zuzendaritza Orokorra ziren, Nafarroako Gobernuak 2015-2019 legegintzaldirako onetsi zuen departamentu-egituraren araberrakoa.

Hurrengo grafikoetan xehakaturik ematen da 2019ko ekitaldiaren eta 2022koaren arteko alde-raketa eta batetik besterako bilakaera, izendun dirulaguntzen partidarik gehienak kontzentratu dauden departamentuei buruz:



Hurrengo grafikoan, izendun partidek izandako bilakaera agertzen da, aurrekontu-ekitaldika eta departamentuka:



Azken batean, izendun partiden parterik mardulena non kontzentratu eta Lurralde Kohesiorako Departamentuaren, Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren aurrekontuetan dago. Bereziki azpimarratzekoa da 2022ko ekitaldian gertaturiko gorakada.

2.3. FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK

2.3.1. Konklusio orokorrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eginiko espediente-tramitazioari buruzkoak

Hauek dira egindako ebaluazioko konklusio nagusiak:

- Berrikusitako espedienteak osorik eta fiskalizatuta daude, eta sinatu diren hitzarmenek jaso egiten dute DFLk ezarritakoa.

Espediente berrikusietan halaber agertzen da kudeatze-organoei adostasuna eman dutela dirulaguntzen onuradun diren toki-entitateetan gardentasunaren eta informazio publikoaren printzipioak beteta egotearekin, horrela jarraituz 5/2018 Foru Legeak, maiatzaren 17koak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak dioenari.


- Berrikusi dugun lagineko dirulaguntza guztiek, 2019ko ekitaldian Tuterako Udaleri emandakoak izan ezik, datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu dituzte.

2.3.2. Konklusioak eta emaitzak, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako izendun partidetan dirulaguntzak zuzenean ematearen araubideari buruzkoak, departamentuka

Kultura eta Kirol Departamentua

Departamentu honetan berrikusitako dirulaguntzak Nafarroako Kirolaren Institutuarena den Azpiegituren eta Garapen Estrategikoaren Zuzendariordetzak kudeatuak izan dira. Hauexek dira aurrekontu-datuak:

	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	1.300.010	34	400.000	% 26	400.000	% 29	300.000	10
Izendun dirulaguntza-partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	2.557.606	66	1.122.506	% 74	983.500	% 71	2.763.000	90
Guztira	3.857.616	100	1.522.506	% 100	1.383.500	% 100	3.063.000	100



Aipatu zuzendariordetzak epealdi berrikusian guztira zituen izendun dirulaguntzen 66 partidetatik honako lagin hau hautatu da:

Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Aurrekontu-zuzkidura	Ekitaldia
Parlamentuko zuzenketa	Tuterako Udalarekiko hitzarmena, Tuteran kiroldegi berri bat egiteko	2.000.000	2019
Parlamentuko zuzenketa	Arguedasko kirol instalazioak egokitu, hobetu eta eraikitzea	150.000	2020
Parlamentuko zuzenketa	Villatuertako futbol-zelaian soropil artifiziala jartzea	150.000	2020
Parlamentuko zuzenketa	Lodosako udal futbol-zelaiko soropila ordezte-berritzea	150.000	2020
Aurrekontu proiektua	Garesko frontoia 2019 eta 2020an eraberritzea	200.000	2021
Parlamentuko zuzenketa	Faltzesko Udalarentzako transferentzia: soropil artifiziala paratzea futbol-zelaian	150.000	2022
Aurrekontu proiektua	Burlatako Udalarentzako dirulaguntza, atletismo-pista eraberritzea	200.000	2022
Guztira		3.000.000	

Nafarroako Kirolaren Institutuak urtero onesten du norgehiagoka-araubideko deialdi bat, xede duena kirol-instalazioetarako inbertsioak finantzatzea, araudira egokitzea proposatzen duten eraberritzeetarakoak eta erabiltzaileentzako zerbitzu-ematearen hobekuntza ekarriko duten kirol-instalazioen eraberritzeetarakoak. Gure berrikuspenean lortutako datu nagusiak honako hauek dira:

Urteroko deialdia		
Ekitaldia	Laguntzaren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa.
2019	% 60	120.000
2020	% 60	60.000
2021	% 60	60.000
2022	% 60	60.000

Berrikuspenaren emaitzak hauexek izan dira:

- Tuterako Udalarekiko hitzarmena, Tuteran kiroldegi berri bat egitekoa

Izendun dirulaguntza bat da, Nafarroako Gobernuak bi milioiko ekarpen batekin eta Estatuko Goi-mailako Kirol Institutuak hiru milioiko ekarpen batekin kofinantzatutako obra berri bat egitekoa. Dirulaguntza honek ez zuen tokirik izanen urterako deialdietan, horiek eraberritze-lanetarako direnez gero.

- Laginean hautaturiko gainerako partidei buruz, honakoa ondoriozta daiteke:

- Berrikusitako izendun dirulaguntzen xedea bat dator urterako deialdien xedearekin, eta talde parlamentarioen zuzenketa-proposamenetako azalpenetik ez da eratortzen inolako premia berezi edo bestelakorik dagoenik horiek justifikatzeko, urteroko deialdietara aurkezten diren udalen dirulaguntzen aldean.

- Izendun dirulaguntzen zenbatekoen eta urterako deialdien bitartez emandakoen zenbatekoen arteko konparazioa honako koadro honetan azaltzen da:

	2020	2020	2020	2021	2022	2022
	Arguedas	Villatuerta	Lodosa	Gares	Faltzes	Burlata
Emandako izendun dirulaguntza	150.000	150.000	150.000	200.000	150.000	200.000
Exekutaturiko izendun dirulaguntza	150.000	150.000	150.000	200.000	150.000	200.000
Norgehiagokaraubideko dirulaguntzaren gehieneko muga	60.000	60.000	60.000	60.000	60.000	60.000
Aldea	90.000	90.000	90.000	140.000	90.000	140.000

Horrenbestez, ikusten da izendun dirulaguntzen bitartez zuzeneko bidetik jasotzen direla deialdi orokorrean sartutakoak baino zenbateko askoz handiagoak.

- Bestalde, ondoko koadroan azaltzen dugu urterako deialdian baiezkua nahiz ezezkoa eman zaien eskaerei buruzko datuen bilakaera:

Urterako dirulaguntza-deialdia	2019	2020	2021	2022
Gutzizko eskaera-kopurua	71	41	33	24
Eskaera onartuen kopurua	14	8	8	7
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren kopurua	57	33	25	17
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren portzentajea	% 80	% 80	% 76	% 71
Izendun dirulaguntzen onuradunen kopurua	5	12	13	38

Koadro honetatik nabarmentzen dugu ezen, aztertutako epean, urterako deialdietara aurkezturiko eskaeren batez besteko kopuruaren ehuneko 77ri ezezkoa eman zaiola, krediturik ezagatik, urteroko emate-ebazpenetan adierazten den bezala.

Horrez gain detektatu dugu 2019ko deialdi orokorrera aurkeztu ziren bi toki-entitateri laguntza ukatu egin zitzaizela aurrekontu-krediturik ezagatik eta gero, 2020an eta 2021ean, aurrekontueta-ko izendun dirulaguntzen hartzaile izan zirela. Aipatu horiek dira Murchanteko Udala, zeinak

2020ko ekitaldian 200.000 euro jaso baitzituen, eta Lekunberriko Udala, 2021eko ekitaldian 60.000 euro jaso zituen.


• Geroagoko datu jakingarri gisa, ohartarazten dugu Nafarroako Kirolaren Institutuaren 2023ko aurrekontuetan honako hau ikusten dela:

- “Kiroldegiak eraberritzeko deialdia, toki-entitateentzako” deritzon laguntza-partida orokorrean hamar euroko aurrekontu-zuzkidura.
- 39 izendun partidatan banaturiko 4,64 milioiko zenbatekoa duen aurrekontu-zuzkidura. Horretan, 2,84 milioi egiten duten 34 partidak Parlamentuko zuzenketetan dute jatorria, eta gainerakoa dagokie Nafarroako Gobernuak berak aurrekontuen foru lege proiektuan txertaturiko izendun partida batzuei.

Hezkuntza Departamentua

Berrikusitako dirulaguntzen kudeatzailea Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua izan da, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusikoa. Hauexek dira aurrekontu-datuak:

	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetakoa aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	1.250.000	59	1.250.000	70	2.250.000	62	2.264.980	64
Izendun dirulaguntza-partidetakoa aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	852.000	41	525.000	30	1.400.171	38	1.273.571	36
Guztira	2.102.000	100	1.775.000	100	3.650.171	100	3.538.551	100



Aipatu Zerbitzuaren epealdi ikuskatuko 46 izendun dirulaguntza-partidetatik honako lagin hau hautatu da:

Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Aurrekontu-zuzkidura	Ekit.
Parlamentuko zuzenketa	Energia-hobekuntza Beriaingo ikastetxe Publikoan	250.000	2019
Parlamentuko zuzenketa	Remontival ikastetxe publikoko teiatua zaharberritzea	206.000	2019
Parlamentuko zuzenketa	Agoizko San Miguel ikastetxe publikoa egokitzeko obrak	70.000	2020
Aurrekontu-proiektua	Suspertu Plana, Doneztebeko ikastetxe publikoko kanpo-jolastokiaren estaldura	300.000	2021
Parlamentuko zuzenketa	Altsasuko Zelandi ikastetxe publikoko jolastokia berrurbanizatzea	236.000	2021
Parlamentuko zuzenketa	Ultzamako Udalarentzako transferentzia, ikastetxe publikoko jantokiko obretarakoa	140.000	2022
Parlamentuko zuzenketa	Beriaingo HLHIPko metal-arotzeria aldatzea	160.000	2022
Parlamentuko zuzenketa	Mendigorriko Udalarentzako transferentzia, J. M. Espinal Olcoz HLHIPko estaldura partzialerakoa	193.000	2022
Guztira		1.555.000	

Urtero, aipatu zerbitzuak norgehiagoka-araubideko deialdi bat onesten du, eta horren oinarri arautzaileen xedea da oztopo arkitektonikoak kentzearen, energia-efizientziaren eta aire-kalitatea hobetzearen alorretako araudi indardunera egokitu beharra duten obrak finantzatzea, bai eta ikastetxeen jardun normal eta egokirako nahitaezko instalazioak izateagatik esku-hartze urgente eta saihetsezin baten beharrea dauden eraikin edo instalazioak hobetzeko edo birmoldatzeko obrak ere.

Gure berrikuspenean lortutako datu nagusiak honako hauek dira:

Urterako deialdia		
Ekitaldia	Laguntzaren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa
2019	% 65 - % 100*	60.000
2020	% 65 - % 100*	60.000
2021	% 65 - % 100*	80.000
2022	% 65 - % 100*	80.000

* Diruz laguntzeko moduko portzentajeen tartea ikastetxe bakoitzean irakasten den hezkuntza-ziklo motaren arabera da.

Hauexek dira eginiko berrikuspenetik ateratako ondorioak:

- Izendun dirulaguntzen xedea bat dator urterako deialdien xedearekin, eta talde parlamentarioen zuzenketa-proposamenetako azalpenetik ez da ondorioztatzen inolako premia berezi edo bestelakorik dagoenik horiek justifikatzen dituenik, urteroko deialdietara aurkezten diren udalen dirulaguntzen aldean. Horrez gain, honakoa azpimarratzen dugu:

- Utzamako eta Agoitzeko udaletako ikastetxe publikoentzako izendun dirulaguntzetan, finantzaturiko obrak partzialki finantzatuta daude norgehiagoka-araubideko deialdian ere; alegia, laguntzen deialdian ezarritako mugaren osagarri gisa.
- Beriaingo Udalak zenbait dirulaguntza jaso ditu epealdi ikuskatuan, ikastetxean berritze-obra multzo bat finantzatzekoak. Jasotakoak izendunak izan ziren 2019ko eta 2022ko ekitaldietan, eta norgehiagoka-araubidekoak 2021ean.

- Izendun dirulaguntzen zenbatekoen eta urterako deialdien bitartez emandakoen zenbatekoen arteko konparazioa honako koadro honetan azaltzen da:

	2019	2019	2020	2021	2021	2022	2021	2022
Udala	Beriain	Lizarra	Agoitz	Doneztebe	Altsasu	Ultzama	Beriain	Mendigorría
Ikastetxe publikoa	Beriain	Remontival	San Miguel	San Miguel	Zelandi	Larraintzarko Ikastetxea	Beriain	Aurizberri
Emandako izendun dirulaguntza	250.000	206.000	70.000	300.000	236.000	140.000	160.000	193.000
Exekutaturiko izendun dirulaguntza	250.000	206.000	70.000	278.075	233.948	140.000	160.000	182.827
Norgehiagoka-araubidean diruz lagundu daitekeen gehieneko muga	60.000	60.000	60.000	80.000	80.000	80.000	80.000	80.000
Aldea	190.000	146.000	10.000	198.075	153.948	60.000	80.000	102.827

Horrenbestez, ikusten da izendun dirulaguntzen bitartez zuzeneko bidetik jasotzen direla deialdi orokorrean sartutakoak baino zenbateko askoz handiagoak.

- Berrikusitako ekitaldi guztietan ikusten da ezen urterako deialdian zenbait eskaera aurrekontu-krediturik ezagatik ezetsi egiten direla. Datuak honako hauek dira:


Urterako dirulaguntza-deialdia	2019	2020	2021	2022
Eskaera-kopurua	67	130	142	74
Eskaera onartuen kopurua	37	55	67	67
Krediturik ezagatik ezezkua eman zaien eskaeren kopurua	30	75	75	7
Krediturik ezagatik ezezkua eman zaien eskaeren portzentajea	% 45	% 58	53	% 10
Izendun dirulaguntzen onuradunen kopurua	6	9	11	13

Koadro honetatik nabarmentzen dugu ezen, azterturiko epean, urterako deialdietara aurkezturiko eskaeren batez besteko kopuruaren ehuneko 42ri ezezkoa eman zaiola kreditu-urritasunagatik, urteroko emate-ebazpenetan adierazten den bezala.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Plan Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzua izan da, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren barrenean, berrikusitako dirulaguntzak kudeatu dituena. Hauexek dira aurrekontu-datuak:

	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetak aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	-	-	487.272	76	1.302.539	80	3.653.728	67
Izendun dirulaguntza-partidetak aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	-	-	158.000	24	321.833	20	1.815.000	33
Guztira			645.272	100	1.624.372	100	5.468.728	100



Aipatu Zerbitzuaren epealdi ikuskatuko 25 izendun dirulaguntza-partidetatik honako lagin hau hautatu da:

Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Aurrekontu-zuzkidura	Ekitaldia
Parlamentuko zuzenketa	Abaurregaineko Udalarekiko hitzarmena, hiri-ingurunea era jasangarrian atsegin egiteko proiekturako	75.000	2022
Parlamentuko zuzenketa	Zaraitzuko Batzarrearekiko hitzarmena: Irati-Abodi proiektua	45.000	2022
Parlamentuko zuzenketa	Lurralde garapenerako eremuaren proiektua, Igantziko Udala	200.000	2022

2021eko ekitaldian, Plan Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzuak norgehiagoka-araubideko dirulaguntza-deialdi bat onetsi zuen, Pirinioen Planaren lurralde-esparruko tokitantitateentzako, lurralde-garapen jasangarriko proiektuetan inbertsioak egiteko 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan.

Gure berrikuspenean lortutako datu nagusiak honako hauek dira:

2021-2023 deialdiak			
Proiektua	Urterako deialdiaren xedea	Laguntza-ren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa
A Taldea	60.000 euro baino gehiagoko inbertsioak	% 70	200.000
B Taldea	ak 60.000 euro baino gutxiagoko inbertsio-	% 80	15.000

Hauexek dira eginiko berrikuspenetik ateratako ondorioak:

- Nahiz eta Abaurregaineko Udalari emandako izendun dirulaguntza 2022ko proiektu bati dagokion eta, horrenbestez, ezin izanen zen 2021eko ekitaldiko deialdian sartu, deialdiaren xedea-ekin bat dator.

- Zaraitzuko Batzarreari emandako izendun dirulaguntzan ikusten da ezen diruz lagundutako proiektua halaber izan dela finantzatua 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zen dirulaguntza-deialdiaren bitartez. Nahiz eta laguntza-deialdian ehuneko 80koa den diruz laguntzeko moduko gehieneko portzentajea, ehuneko 20 eman zitzaion, aurrekontu-mugapenak tarteko. Izendun dirulaguntza-partida onesteak ekarri du guztira ehuneko 90eko finantzaketa jaso izana, halatan gainditurik deialdian ezarritako gehieneko muga.

- Igantziko Udalari emandako izendun dirulaguntza ezin izanen litzateke deialdiaren bitartez diruz lagundu, ez baitago Pirinioetako eskualdean. Hala ere, ohartarazten dugu parlamentuzuzenketa, kasu honetan, aurkeztu zela Gobernuak berak aurrekontuen foru lege proiektuan jaso zuen izendun partidaren zenbatekoa⁸ handitze aldera.

- Egindako deialdian zenbait eskaera ezetsi ziren aurrekontu-krediturik ezagatik. Datuak honako hauek dira:

Urterako dirulaguntza-deialdia	2021-2022
Eskaera-kopurua	50
Eskaera onartuen kopurua	28
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren kopurua	22
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren portzentajea	% 44
Izendun dirulaguntzen onuradunen kopurua	9

Koadro honetatik nabarmentzen dugu ezen, azterturiko epean, urterako deialdietara aurkezturiko eskaeren ehuneko 44ri ezezkoa eman zitzaiela kreditu-urritasunagatik, emate-ebazpenean adierazten den bezala.


Lurralde Kohesiorako Departamentua

Berrikusitako dirulaguntzen kudeatzailea Toki Azpiegituren Zerbitzua izan da, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusikoa.

Hauexek dira aurrekontu-datuak:

	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Urterako aurrekontu-zuzkidura, toki-inbertsioen finantzetarako plan desberdinetan kudeatutako partidetan	-	-	41.947.259	95	18.911.423	81	27.069.842	82
Izendun partidetak aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	-	-	2.275.000	5	4.490.515	19	5.827.412	18
Guztira	-	-	44.222.259	100	23.401.938	100	32.897.254	100

⁸ Aurrekontu-proiektuak 150.000 euroko finantzaketa aurreikusten zuen; eta, zuzenketa tarteko, aurrekontu-zuzkidura 200.000 euroraino igotzen da.



Eginiko berrikuspenaren emaitzak xehakatu aurretik, bi zertzelada nabarmendu beharra dago, toki-entitateentzako (TTEE, aurrerantzean) finantzatze-transferentzietan eginiko gastuari buruz:

- Bai uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoak, bai ondorengo martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoak, TTEE-en finantzaketarako baliabide-iturri gisa ezartzen dute Foru Komunitatearen eta Estatuaren tributuetako partaidetza. Finantza-jardunbide hori udal eta kontzejuen baliabide berekia, partaidetzakoa eta ez-dirulaguntzazkoa da, transferentzia arrunten nahiz kapital-transferentzien bidez helarazia.

- “Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtza” delakoaren zenbatekoa kapital-transferentzien partean banatzen da Toki Inbertsioen Planen bitartez (aurrerantzean, TIP), zeinen definizioa baita “azpiegiturak eta zuzkidurak instalatu, hobetu eta berritzera bideraturiko inbertsioen multzoa, honako ataletan sailkatuak”:

- a) Inbertsio Programaren atalean sartzen dira toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatutakoak, uraren ziklo integralaren plan gidariei eta Nafarroako Hondakin Planari dagozkionak hain zuzen ere. Plan gidari horiek inperatiboak dira, eta tokiz gaindiko interesekotzat deklaratuak daude.
- b) Toki Programazioa: atal honetan sartzen dira toki erakundeek eskatutako inbertsioak, arlo hauetakoak: hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak; zoladura-lanak sareekin; zoladura-lanak sarerik gabe; zeharbideen urbanizazio-lanak eta toki-zuzkidurak. Banaketa egiten da toki-entitateen eskaerei erantzunez, lehentasun- eta hautaketa-irizpideetan oinarrituta.
- c) Determinazio Librea: atal honetan sartzen dira toki-erakunde onuradunek beraiek beren toki autonomiaz baliatuz eta ez beste inola zehaztuta dauden inbertsioak. Biztanleria- eta dispartzio-irizpide objektiboen arabera banatzen da.

Nabarmentzen dugu hain zuzen departamentu honetan kontzentratu dela izendun partiden bolumenik handiena.

Berrikusitako epealdian Zerbitzu horrek guztira izandako 199 izendun partidetatik, honako la-
gin hau hautatu da:

Jatorria	Izendun dirulaguntzak	Aurrekontu- zuzkidura	TIP kointzidentzia	Ekitaldia
Parlamentuko zuzenketa.	Ribaforadako udal kiroldegia. Indarreko araudira egokitzea.	200.000	Toki programazioko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Arradako kontzeju-etxea zaharberritzea eta bertan igogailua jartzea	170.000	Toki programazioko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Caparrosoko futbol-zelaiko sarbideen urbanizazioa	150.000	Toki programazioko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Sartagudako igerilekuak, taberna eta aldagelak egokitzea	143.000	Toki programazioko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	San Adriango kirol instalazioetarako sarbidea egokitzea eta hobetzea	125.000	Toki programazioko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Sesmako kirol eremuaren ingurua egokitzea eta hobetzea	150.000	Determinazio Libreko aukera	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Cabanillasko ubidearen ertzeko oinezkoen pasealekua egokitzea eta luzatzea	140.000	Ez	2020
Parlamentuko zuzenketa.	Faltzesko erabilera anitzeko eremu estalia	150.000	Determinazio Libreko aukera	2020
Aurrekontu-proiektua	Baztango Bideak	500.000	Toki programazioko aukera	2021
Aurrekontu-proiektua	Suspertu Plana Ziordiko Udalarekiko hitzarmena, kalekonponketarako, zoladurarako eta azpiegituretarako	175.000	Toki programazioko aukera	2021
Aurrekontu-proiektua	Eloko Zeharbidea	434.015	Toki programazioko aukera	2021
Parlamentuko zuzenketa.	Vianako Navarro Villoslada kalea egokitzea	160.000	Toki programazioko aukera	2021
Parlamentuko zuzenketa.	Murchanteko kiroldegia egokitzea	160.000	Toki programazioko aukera	2021
Parlamentuko zuzenketa.	Altsasuko erdigunean eta merkataritza aldean gune estali bat (pergola) eraikitzea	300.000	Determinazio Libreko aukera	2022
Parlamentuko zuzenketa.	San Adriango Udalarentzako transferentzia: kaleko argietarako, argiztapenerako eta seinalezapenerako instalazioak berritzea	200.000	Egungo TIPean ez dago argiteria-lerrik.	2022
Parlamentuko zuzenketa.	Zangozako Udalarentzako transferentzia. I. fasea Hiltegi zaharra zaharberritzea erabilera sozialetarako	170.000	Toki programazioko aukera	2022
Parlamentuko zuzenketa.	Sesmako Udalarentzako transferentzia: igerilekuetako, kiroldegiko eta ikastetxeko bidea urbanizatzea	150.000	I. Toki programazioko aukera	2022
Aurrekontu-proiektua	Tafallako Udalarekiko hitzarmena, Errekoletoen komentua eta eliza zaharberritzeko obretarako	200.000	Ez	2022
Aurrekontu-proiektua	Berako Kalbario errekararen ibilgu berria	498.000	Ez. Eskumena Ingurumen Departamentuarena dela irizten da	2022

Kudeatze-organoarekin izan ditugun komunikazioak eta berrespenak kontuan harturik, ezinezkoa izan zaigu kuantifikatzea dirulaguntzaren balizko finantzaketa-gaindikina, TIParen arabera suertatuko zatekeenarekin alderatuta. Hori lortzeko, beharrezkoa litzateke jarduketa bakoitzari buruzko azterlan xehakatu egitea, gerta bailiteke proiektu edo jarduketa baten zati jakin batzuk ez izatea TIPetik finantzatzeko modukoak.

Nolanahi ere, eta berrikusitako gainerako departamentuetan ez bezala, non aztertu baitugu izendun dirulaguntzen xedearen balizko bat-etortzea urterako laguntza-deialdietan aurreikusita-koarekin (betiere dirulaguntzen mugarte juridikoan), departamentu honen kasuan bat-etortzea, partziala bederen, toki-inbertsioak finantzatzeko jardunbide batekin suertatzen da, izaera juridiko nabarmen bestelakoa duena, zeina baita "Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsa".

Toki-finantzaketak duen tributuetako partaidetzako izaera ez desitxuratu eta, horrenbestez, ez hutsaltzearen, uste dugu dirulaguntza hauek lortu nahi duten helburuak beharrezkoa duela aipatu funtsaren esparru orokorrean hobeto txertatzea, eta horregatik beharrezkoa litzatekeela haien zuzkidura areagotzea finantzaketaren banaketa bidezkoago baterako; edo, bestela, TIParekin bateragarri diren inbertsiorako dirulaguntzen deialdiak, urterakoak, onetsi beharko liratekeela, norgehiagoka-araubidearen bitartez kudeatuak, halatan ekidinez zuzenean ematearen araubidea behar adinako justifikagarririk gabe aplikatzeak sortzen duen desberdinkeria.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua


Berrikusi diren dirulaguntzak honako unitate organiko hauek kudeatuak dira:

- Lehiakortasunaren Zerbitzua, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusikoa.
- Trantsizio Energetikoaren Zerbitzua, Industriaren, Energiaren eta Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusikoa.

Bi kudeatze-organoen aurrekontu-datuak honako hauek dira:


Lehiakortasunaren Zerbitzua	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	2.292.332	88	991.280	67	1.213.161	73	21.955.897*	99,9
Izendun dirulaguntza-partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	300.000	12	490.000	33	455.000	27	25.000	0,1
Guztira	2.592.332	100	1.481.280	100	1.668.161	100	21.980.897	100,0

* PDR FEADER 2014-2020 funtsetatiko 19,02 milioi barne hartzen dira.



Trantsizio Energetikoaren Zerbitzua	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	Ez da aplikatzen	-	3.381.473	97	7.202.214	99	38.975.259*	99
Izendun dirulaguntza-partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	Ez da aplikatzen	-	115.700	3	60.700	1	255.000	1
Guztira			3.497.173	100	7.262.914	100	39.230.259	100

* MMR funtsetatiko 29,62 milioi barne hartzen dira



Lehiakortasunaren Zerbitzua

Berrikusitako epealdian aipatu Zerbitzuak guztira zeuzkan bederatzirako dirulaguntza-partida izendunetatik honako lagin hau hautatu da:

	Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Aurrekontu-hornidura	Ekitaldia
Zerbitzua	Aurrekontu-proiektua	Andosillako Udalarentzako transferentzia, industria-lurzoruko jarduketetarakoa	190.000	2021
Lehiakortasuna	Parlamentuko zuzenketa	Altsasuko Ibarrea industrialdeko uren saneamenduaren bigarren fasea exekutatzeko	250.000	2020
	Parlamentuko zuzenketa	Arroizko Udala: industrialdea urbanizatzea	150.000	2021

2020ko eta 2021eko ekitaldietan urterako deialdiak onetsi ziren, norgehiagoka-araubidekoak, eta haien finantzatze-xedea izan zen jarduera ekonomikoak egiteko industrialdeak eta udal-lokalak sustatzea. Gure berrikuspenean lortutako datu nagusiak honako hauek dira:

Ekitaldia	Laguntza-ren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa
2020	30-50	Ez dago mugarik
2021	30-50	250.000

Hauexek dira eginiko berrikuspenetik ateratako ondorioak:

- Berrikusi diren izendun dirulaguntzen xedea bat dator urterako deialdien xedearekin, eta talde parlamentarioen zuzenketa-proposamenetako azalpenetik ez da ondorioztatzen inolako premia berezi edo bestelakorik dagoenik horiek justifikatzen dituenik, urterako deialdietara aurkezten diren udalen dirulaguntzen aldean.

- Izendun dirulaguntzen zenbatekoen eta urterako deialdien bitartez emandakoen zenbatekoen arteko konparazioa honako koadro honetan azaltzen da:

	2020	2020	2021
Lehiakortasunaren Zerbitzua	Altsasu	Andosilla	Arroitz
Emandako izendun dirulaguntza	250.000	190.000	150.000
Ordaindutako izendun dirulaguntza	226.464	190.000	150.000
Deialdiaren oinarri arautzaileetan aurreikusitako finantzaketa-portzentajea aplikatuz gero dirulaguntzak izanen lukeen zenbatekoa (aukera-aurrekontuaren % 50)	113.232	85.000	46.554
Aldea	113.232	95.000	103.446

Horrenbestez, ikusten da izendun dirulaguntzen bitartez zuzeneko bidetik jasotzen direla deialdi orokorrean sartutakoak baino zenbateko askoz handiagoak. Horrez gain nabarmentzen dugu Altsasuko Udalak 2020an II. faseko obraren ehuneko 100eko izendun dirulaguntza bat jaso zuela; eta hurrengo ekitaldian, III. fasearen ehuneko 50 finantzatu zela norgehiagoka-araubideko deialdiaren bitartez.

- Berrikusitako bi ekitaldietan, ikusi dugu urterako deialdietan ez dela aurrekontu-krediturik ezagatik laguntzarik ukatu.

Trantsizio Energetikoaren Zerbitzua

Berrikusitako epealdian aipatu Zerbitzuak guztira zeuzkan zazpi dirulaguntza-partida izendunetatik honako lagin hau hautatu da:

	Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Aurrekontu-zuzkidura	Ekitaldia
Zerbitzua	Aurrekontu-proiektua	Corellako Udalarentzako transferentzia: eraikin publikoetako energia-autokontsumoko proiektua	85.000	2022
Trantsizio energetikoa	Parlamentuko zuzenketa	Arreko Trinitateko zubia argizatzea	60.000	2022
	Parlamentuko zuzenketa	Berroetako argiteria publikoa LED teknologiarara aldatzea	20.000	2021

2021eko eta 2022ko ekitaldietan norgehiagoka-araubideko deialdi publikoak onetsi ziren, eta horiei buruz honako datu hauek nabarmentzen ditugu:

2021eko deialdia. Sustatzea energia-efizientzia, energia berriztagarrien ezarpena eta toki entitateetako mugikortasun elektrikoa	Laguntzaren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa
1. neurria. Kaleetako argiteria publikorako eta eraikin publikoetako barne argiteriarako dauden instalazioak berritzea	60	30.000
2. neurria. Energia berriztagarrien instalazioetan eginiko inbertsioak.	30-50	40.000
3. neurria. Mugikortasun elektrikoa	30-60	20.000

2022ko deialdia. Toki-entitateentzako laguntzak, energia-trantsizioerakoak, 2022	Laguntzaren %	Diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekoa
1. neurria. A. Kaleetako argiteria publikorako eta eraikin publikoetako barne argiteriarako dauden instalazioak berritzea 500 biztanle baino gutxiagoko populazioa duten toki-entitateetan	60	10.000
1.B Neurria. Kaleetako argiteria publikorako eta eraikin publikoetako barne argiteriarako dauden instalazioak berritzea	60	30.000
2.A Neurria. Energia berriztagarrietarako proiektuak prestatzea	80	15.000
2.B Neurria. Energia berriztagarrietarako proiektuak prestatzea	80	15.000
3. neurria. Energia-komunitateak eratzea	80	10.000

Hauexek dira eginiko berrikuspenetik ateratako ondorioak:

- Berrikusi diren izendun dirulaguntzetako bat Berroetako Udalarena da, eta haren xedea bat dator urterako deialdien xedearekin. Talde parlamentarioen zuzenketa-proposamenetako azalpenetik ez da ondorioztatzen inolako premia berezi edo bestelakorik dagoenik hura justifikatzen duenik, urterako deialdietara aurkezten diren udalen dirulaguntzen aldean.

Izendun dirulaguntzaren bitartez lorturiko finantzaketak 7.997 euroan gainditzen du deialdiaren arabera legokioketena, ezen jarduketaren ehuneko 100 finantzatu da, ehuneko 60ren ordez.

- Berrikusitako bi ekitaldietan ikusten da ezen aurrekontu-krediturik ezagatik zenbait eskaera ezetsi egin direla. Datuak honako hauek dira:

Urterako dirulaguntza-deialdia	2021	2022
Eskaera-kopurua	215	83
Eskaera onartuen kopurua	52	80
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren kopurua	163	3
Krediturik ezagatik ezezkoa eman zaien eskaeren portzentajea	% 76	% 4
Izendun dirulaguntzen onuradunen kopurua	1	0


Nabarmentzen dugu ezen, batez beste, eskaeren ehuneko 40ri ezetza eman zaiola kreditu nahikorik ez egoteagatik. Nolanahi ere, bi ekitaldi horietako datuen artean alde handiak daude.

Eskubide Sozialetako Departamentua

Berrikusitako dirulaguntzen kudeatzaile izan da Kudeaketaren eta Baliabideen Zuzendariorde-tza, zeina Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziakoa (PAGNA, aurre-rantzean) baita:

Kudeaketaren eta Baliabideen Zuzendariorde-tza (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia)	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Norgehiagoka-araubideko deialdien bitartez kudeaturiko partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	4.325.175	38	4.294.068	37	4.983.453	39	11.262.434*	57
Izendun dirulaguntza-partidetako aurrekontu-zuzkidura, urtealdikoa	7.061.125	62	7.416.080	63	7.822.380	61	8.611.549	43
Guztira	11.386.300	100	11.710.148	100	12.805.833	100	19.873.983	100

* MMR funtsetatiko 6 milioi barne hartzen dira.



Guztira 57 diren izendun dirulaguntza-partidetatik honako lagin hau hautatu da:


Jatorria	Nafarroako aurrekontu orokorretako izendun partida	Ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura	
Parlamentuko zuzenketa	Down Síndromea Elkartearreko hitzarmena, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako lanerako ikastegirakoa.	230.192	2019
Parlamentuko zuzenketa	El Molinorekiko hitzarmena, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako lanerako ikastegirakoa	259.876	2020
Parlamentuko zuzenketa	FANERekiko hitzarmena, garuneko paralisia eta antzeko gaixotasunak dituzten pertsonentzako lanerako zentroetarako	408.220	2022

- Eginiko berrikuspenean oinarrituta, adierazten dugu ezen, 2003ko ekitalditik aurrera, desgaitasuna duten pertsonentzat Nafarroan dauden lanerako zentro guztiek (irabazi-asmorik gabeko elkarteak) izendun dirulaguntzak jasotzen dituztela, eta kasuko hitzarmena ondoren egiten dela, eskuragarri dituzten postuen arabera. Ez dago laguntza-deialdi publikorik.

Hala eta guztiz ere, PAGNAtik deialdi bat onesten da urtero, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak artatzen dituzten gizarte-erakundeentzat. Deialdiak xede du desgaitasuna duten pertsonen alorrean gizarte-ekimeneko entitateentzako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, irabazi-asmorik gabeko entitateen elkartegintza sustaturik eta desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatzera eta haien mendekotasuna prebenitzera bideratutako programak garatzea indarturik. Deialdi horrek ez ditu barne hartzen laginean berrikusi ditugun lanerako zentroak.

3. GEHIGARRIA. BESTELAKO INFORMAZIOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN 2019-2022 EPEALDIKO AURREKONTU OROKORRETAKO IZENDUN DIRULAGUNTZEI BURUZKOA

Lehenbiziko 15 udal onuradunen zerrenda, finantzaketa-bolumenaren arabera



Aurreko grafikoan finantzaketa-hurrenkeran antolatuta agertzen den lehenbiziko 15 udalen zerrenda dela-eta, azertu da zer-nolako erlazioa dagoen finantzaketa-bolumenaren eta udal-mugarte bakoitzeko biztanle-kopuruaren artean. Azpimarratzen dugu ez dagoela inolako lotura koherenterik finantzaketa-bolumenaren eta biztanleria-tamainaren artean, honako grafiko honek ikusten den bezala:



